

LITERATURA • Katherine Mansfield, ezezagun handi bat oraindik ere

6

Idazle inpresionista baten espresioak

Mendeak eman duen narraziogile handienetariko bat da egilea



Bidelagun, bizilagun

Antton Garikano

ITZULTZAILEA

Zenbat aldiz erantsi duzu aurpegia autobuseko leihoan, eta duda egin duzu, ispilu hartako irudiak benetakoak diren. Horra hor kostaldeko neska gaztea, Beryl, bere maitasun egarriarekin, bere istorio txikiarekin: «Maiteak huts egin, eta bihotza lehen baino okerrago eta bakartiago utzi dit». Han doa Laura, artean umea zela lehenbiziko malkoak isuri zituena, jabetu zenean etxetik kanpoko bizitza zer garrantza den eta heriotzak denok berdintzen gaituela. Eta han dituzu, ttenttente, Constantia eta Josephine neskazaharrak, elkarrekin eta kanpoko munduarekin nola komunikatu asmatu ezinik, eta andre xahar garbitzailea bere erratza eta baldea eta guzti hartuta, iloba hil zaiola eta masaileko malkoa kentzea ahaztuta...

Ezagutu dituzu horiek denak, eta begiak zabaldu dituzunerako joana da goizeko gandua eta argi berritan agertu zaizkizu denak berriro, autobusetik jaitsi eta denean sakabanatzen. Han segitzen du, zutik, Hammond jaunak ere, maleta handia hartuta emaztea noiz helduko, etsita. Zure bidaiaaren hondarrean, irudituzaitu ere, handik urrutira gabe, Katherine Mansfield bera ikusi ote duzun, Zeelanda Berriko etxea eta familia utzi, eta Europara askatasun bila etorrita. Azkenean, batean zein bestean arrotz. Aurpegia oinazeak okertzen diola ikusi duzu, inguruko guztiek kale egin baliote bezala, eta begiak minduta eguzkiaren suagatik edo, beti bila eta bila, inoiz aurkitu duen maitasun baten bila besoak zabalik. Baina halere beti irribarre egiteari utzi gabe. Han daukazu, zain.

Bloomsbury Taldekoekin izan zituen harremanek anekdotiko bilakatu dute askorentzat bere lana, mende honetako idazlerik onenetako bat izan arren.



Alboetara, K. Mansfield, 1914ko argazki bitan. Goian, bere senar J.M. Murryrekin, 1922an. Eskubian goian, 1910ean, gaixoaldi bat gainditzen.



mioari eman zitzaion, eta Bloomsbury Taldeko kideekin (D.H. Lawrence, Virginia Woolf...), harremanetan sartu zen, bigarren senar izango zuen J. M. Murryren bidez.

Gaitza eta heriotza

Emakumeen sexu askatasunaren aldeko agertzen zen, eta bere garaiko medikuntzak eta ohiturek ez zioten gehiegi lagundu horretan. Gaixotasun benereok bizitza osorako markatuko zioten osasuna. Baita tuberkulosiak ere. Bere anaiaren heriotzak —I. Mundu Gerran, 1915ean—, beste modu batean markatu zion bizitza. Poesia ere idatzi zuen harrezkeroztik.

«Katutik duenak inpresionatu ninduen: hotz, lasai, beti bakarti eta zelatan. Bakardadeaz hitz egin genuen eta nire sentimenduak azaltzen zituela konturatu nintzen, inoiz entzun ez nuen modu batean». Hala sumatu zuen Virginia Woolfek Mansfield.

Margo lan zenbaitek eraginda, literatura inpresionista batean murgildu zen zeelandarra. Txekhov maisu errusiarraren irakaspenak

ingelesezko literaturara ekarri zituen. Abiadura, arriskua eta xumetasuna izan zituen ezaugarri. Lehen biak, «badirudielako gauza guztiak nire bizia arriskuan jarritzik behar ditudala, ez baina intelektual bat». Xumetasuna, «efektu apainik gabe, harrokeriarik gabe» idatzi nahi zuelako. «Egia argia eta garbia». Bere bizitzan

abiapuntu zituen istorio laburrak izan ziren horren emaitza: *Alemaniko ostatu batean* (1911), *Preludio* (1918), *Zoriontasuna eta beste kontakizun batzuk* (1920), *Lorategiko festa eta beste kontakizun batzuk* (1922)... Anaia hil zitzaionetik, bakardadea izan zuen gai nagusi, heriotzarekin batera. Zeelanda Berrian izandako

hautzaroa beti oinarri, famili harremanen eta egunerokoaren atzean gordetzen diren dramak azaldu nahi izan zituen. Tuberkulosiak jota hil zen, Fontainebleautik gertu (Paris).

Hil ondoren, Murry alargunak bere *Egunkaria* (1924) eta *Gutunak* (1928) argitaratu zituen besteak beste. Hala ere, hainbat idazki desegin izana leporatu izan zaio.

Anton Txekhov maisuaren irakaspenak ingelesezko literaturara ekartzen lehena izan zen

Amagoia Iban • Donostia

KATHERINE MANSFIELD-EN (1888-1923) lana irakurtzea baino gauza hoberik ez dago, egun ere kalitatez gainezka dira zurtzeko. Euskaraz, *Lorategiko festa eta beste kontakizun batzuk* dugu, Antton Garikanok itzulua, eta 1998ko irailean Ibaizabalen Literatura Unibertsala bilduman argitaratua. Frantsesez, Mansfielden lan gehienak emanak daude, eta Alba argitaletxeak orain gazteleraz plazaratu ditu zeelandarren ipuin guztiak.

Wellington hirian jaioa, bankari dirudun baten alaba zen Kathleen Mansfield Beuchamp. 1903an Londresera bidali zuten ikastera. Bi urte Erresuma Batuan egin ondoren, etxera itzuli zen, eta 1908an jada Londresen zen berriro, bertako giroak erakarrita.

Ezkundu, apartatu, senarrarena ez zuen haur bat Bavariako bainu-etxe batean galdu... Bizitza bohe-

Antzerkia • Kukubiltxoren 'Txirrikiz'

Elorrioko Arriola antzokian gaur bertan

Estreinaldi biratxoa egiten ari da Kukubiltxo talde beteranoa bere azken ikuskitzunekin. Duela astebate eman zuen lehen aldiz jendaurrean, Zornotzan, eta euskal ipuinen tradizioetik abiatutako arrazakeriaren aurkako aldarria da. 17:00etan hasiko da emanaldia.

Dantza • Damian Muñozen 'Asiré'

Gasteizko Principal antzokian datorren ostiralean

Daño ikuskizunarekin gurean zein atzerrian harrera oso ona jaso ostean, lan berri bat aurkeztuko du gasteiztar dantzari honek, etxean oraingoan. *Asiré* gaur bertan estreinatuko du, Valentziako Festival Dansan. Datorren ostiralean Gasteizen arituko da, 20:30etatik aurrera.

Arte • Ipar Euskal Herriko artistak Asiaz

Miarritzeko Asiatika Museoa martxoaren 3a arte

Joan den astean zabaldu zitzaizkion ateak Ipar Euskal Herriko artistak Asiaz inspiratzen diren erakusketari. Asiatika museoa ikusgai dauden Sor-taldeko artelanei erantzunez 58 euskal artistak eginiko eskulturak zein margoak daude ikusgai bertan.

ITSU-ITSUAN

ITSU-ITSUAN • ITSU-ITSUAN